

A I A R A L D E A

Jaietan

JAIETAKO
GEHIGARRI BEREZIA



SAN JOAN ASTOBITZA

LAUDIO

Ekainak 22-30

SANPEDROPEKOAK

LAUDIO

Ekainak 29

ARAKALDO

Uztailak 12-14

ARETA

Uztailak 25-28

UGARTE

LAUDIO

Uztailak 31 - Abuztuak 4

SAN JOAN ASTOBITZA (LAUDIO)

Astarte, Brigade Loco eta Akerbeltz igoko dira auzoko oholtzara

Ekainaren 22an, 23an eta 30ean egongo dira ekintzak. Krosa larunbatean izango da, baina jarduera gehienak igandean pilatu dituzte. Egun horretan piztuko dute udako solstizioa ospatzeko sua.



Brigade Loco taldeak joko du larunbatean, besteak beste. Saioa "Gauilunak"

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

San Joan Astobitzako festen egitaraua zabaldu dute dagoe-neko. Txosnagunean erasorik ez dela onartuko adierazi dute: "Gogoraztea tristeza bada ere, San Joan jailetan ez dugu inolako eraso matxista, sexista ez eta homofoborik onartuko. Gozatzeraz bazatoz, ordu txikitana soka tira egitera gera zaitezke, bestela, gera zaitez etxean lasai".

Egitarauari dagokionez, larunbat iluntzean hasiko dira jaiak, auzoko krosarekin. 22:00etan, berriz, kontzertuak egongo dira. Astarte talde amurriarra izango da oholtzara igotzen lehena. Bergarako Brigade Locoren punk-oi soinuen txanda izango da jarraian, eta Akerbeltz erromeria arduratuko da jaia goizeko ordu txikietara arte luzatzeaz.

Igandean egingo dira ekintza gehienak. Krosa, aldiz, larunbatean egingo da, arratsaldeko zortzietan

Igandea, egun nagusi

Igandean izango da udako solstizioa, eta egun hori indartu nahi izan du Jai Batzordeak. Hala, 12:00etan ziza dastaketa egingo dute, Laudioko mikologia elkartearekin batera. Eguerdian meza eta Andere abesbatzaren kantaldia egongo dira, eta segidan Itxarkundia dantza taldearen erakustaldia. Zelaian, berriz, artzain txakurren txapelketa antolatu dute.

Arratsaldean pilatu dituzte haurren ekintzak, buruhandiak eta jolasak kasu. Ohi bezala, zantzarraz igoko dira herrigunetik auzora iluntzean, 22:00etan suaren bueltan udari ongietorria emateko. Basajaun erromeriarekin girotuko dute urteko gaurik laburrena.

Ekainaren 30ean, aldiz, kofraden bazkaria eta meza izango dira eguerdiko ekintzak, trikitilari eta panderojoleek lagunduta.

06.22 Larunbata

20:00 // XIV. Krosa
22:00 // Kontzertuak:
Astarte, Brigade Loco eta Akerbeltz

06.23 Igandea

12:00 // Ziza dastatzea
Laudioko Mikologia
Elkartearen eskutik
12:00 // Meza eta Andere abesbatzaren kantaldia
12:30 // Euskal dantzak
Itxarkundia dantza taldearen eskutik
12:30 // Artzain txakur txapelketa, Astobitzako zelaian
18:00 // Haurrentzako jolasak, Kirikiño aisialdi taldearen eskutik
19:00 // Buruhandiak, Galtzarri Kultur Elkartearen eskutik
21:00 // Joaldunen igoera, Ttuntturro

taldearen eskutik
22:00 // Sua eta Akelarre dantza taldearen emanaldia



23:00 // Kontzertuak:
Basajaun erromeria

06.24 Astelehena

12:00 // Meza eta Andere abesbatzaren kantaldia

06.30 Igandea

13:00 // Meza eta Santa Luzia koralaren kantaldia
14:00 // Kofradiako kideen bazkaria
17:00 // Trikitilari eta panderojoleak

SAN JOAN 2019
ASTOBITZAKO
JAIK

LARUNBATA
06/22
20:00 XIV. KROSA
22:00 KONZERTUAK
ASTARTE
BRIGADE LOCO
AKERBELTZ
IGANDEA
06/23
12:00 ZIZA DASTATZEA (LAUDIOKO MIKOLOGIA ELKARTEA)
12:30 EUSKAL DANTZAK (ITXARKUNDIA DANTZA TALDEA)
12:30 ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA (ASTOBITZAKO ZELAIAN)
18:00 HAUR JOLASAK (KIRIKIÑO AISIALDI TALDEA)
19:00 BURUHANDIAK (GALTZARRI KT)
21:00 JOALDUNEN ISOERA (TTUNTURRO)
22:00 SAN JOAN SUA - AKELARRE DANTZA TALDEA
23:00 KONZERTUAK

IGANDEA
06/24
12:00 MEZA ETA SANTA LUZIA KORALAREN KANTALDIA
14:00 KOFRAIAKO KIDEEN BAZKARIA
17:00 TRIKITILARI ETA PANDEROJOLEAK

BASAJAUN
ERROMERIA
ASTELEHENA
06/24
12:00 MEZA ETA ANDERE ABESBATZAREN KANTALDIA

SAN JOAN 2019
ASTOBITZAKO
XIV. KROSA
EKAINAK 22 DE JUNIO
A LAS 20:00 ETAN
EN LA ERMITA DE SAN JOAN BASELIZAN
9 KM

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO
KON
MEMENTO
944 045 007

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO
KON
MEMENTO
944 045 007

EZ DIRA ERASO MATXISTA, SEXISTA ETZA HOMOFORIK ONARTUKO

SANPEDROPEKOAK (LAUDIO)

Indartuta datoz aurtengo Sanpedropeko jaiak

Egun osoko egitaraua prestatu du Laudioko Jaiak Koordinakundeak ekainaren 29rako. Ohiko Sukalki lehiaketaz gain, bertsolariak, elektrotzaranga eta erromeria

egongo dira arratsaldean eta gauean. Olinpiadak ere errepikatuko dituzte aurten Batzalarrin kalean, iazkoek arrakasta handia izan zuelako.

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

Ohi bezala, ekaineko azken larunbatean ospatuko dituzte Laudion Sanpedropeko jaiak. Egitarau oparoa antolatu dute Jaiak koordinakundeko aurtengo ediziorako, arratsalde eta gaueko eskaintza ere atondu baitute.

Sukalki lehiaketarekin eman-gio diote hasiera egunari goizeko bederatzieta, Aldai plazan. Lehen postuan geratzen diren parte hartzaileek saskia eta txapela jasoko dituzte sari moduan, bigarren postua erdiesten dutenek saskia eta zapia eta hirugarrenek, aldiz, urdaiazpiko hanka.

Ordubeteko tartea baliatuko dute epaileek sukalki onenak zeintzuk diren ebazteko. Bertsolariak egongo dira bien bitartean, plazan dagoengiroaren inguruak inprobisatzen. Bazkaria egingo dute gero, sukalkia oinarritzko plater moduan baliatuta.

Kontzertuak Alberto Acheron

Arratsaldean, aldiz, bingoa eta Beti Jai elektrotzaranga egongo dira. Olinpiadak egingo dituzte gero, arratsaldeko zortzietan Batzalarrin kalean. "Iaz egin genituen lehenbiziko



Sukalki lehiaketa izango da jaien ekintza nagusienetako bat. Aldai plazan egingo dute norgehiagoka. Aiaraaldea.eus

aldiz, eta arrakasta handia izan zuten", azaldu dute Jaiak Koordinakundeko kideek.

Iluntzean, aldiz, Alberto Acheron plazara mugituko da jaiak, erromeriak joko baitu bertan.

Sanpedropekoak amaituta, abuztuko Sanrokeei begira geratuko dira Jaiak Koordinakundeko kideak. Hainbat ekimen dituzte koadrilek esku artean abuztuko jaietarako. "Aurten ez dugu jolasgune erraldoia antolatuko. Saskibaloiarekin lo-

Olinpiadak egingo dituzte berriz, iazko arrakasta errepikatzeko asmoz

tutako ekimen bat egingo dugu horren orde, Baldarrak koadrilen eskutik", aurreratu dute.

Koadrila berria

Pozik daude Jaiak Koordinakundeko kideak, koadrila bat batu delako antolakundera. Azkenak du izena eta hogeitau inguruko gazteez osatua dago. "Ekimenak antolatzeko gogoak dituzte gainera". Belaunaldi aldaketa, beraz, apurka apurka bermatzen ari dela dirudi.

06.29**Larunbata**

9:00 // Sukalki txapelketa

11:00- 13:00 //

Umeentzako tailerrak

13:30-14:30 // Bertso

saioa (Epaimahaiak

sukalkiak dastatzen

dituen bitartean)

14:30 // Bazkaria



16:00 // Bingoa

18:00-20:00 //

Elektrotzaranga

20:00 // Olinpiadak

eta ogitarteko jana,

Batzalarrin kalean



23:00 // Erromeria



mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

www.mendexapark.com

Tel. 688856283 info@mendexapark.com



ARAKALDOKO JAIK

Espartero jeneralaren panpina erreta ospatuko dute udako solstizioa Arakaldon

Aurreko urteetako ohiturari jarraiki, Espartero jenerala irudikatzen duen panpina erreko dute Arakaldon udako solstizioa ospatzeko.

Badituzte horretarako arrazoiak: militar espainiarrak herria erretzea agindu zuen 1835. urtean, bere aurkako enbor-bonba batek eztanda egin ostean.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Oso zabaldia dago udakoi solstizioa ospatzeko pizten diren sutan panpinak erretzeko ohitura. Amurrion sorgin baten figura erretzen zen, Otsemeak talde feministak duela bi urte eginiko ekintza batek ohitura birplanteatzea ekarri zuen arte.

Arakaldon, aldiz, ohitura berri bat ezarri dute azken urteetan: Espartero jenerala irudikatzen duen panpina erretzea. Ekainaren 23an jarri dute horretarako zita, zortzietan herriko plazan.

Militar eta politikari espainiarra izan zen Joaquín Baldomero Fernández Espartero Álvarez de Toro. Lehen Karlistadan bete zuen eginkizunagatik da ezaguna batik-bat. Baina Arakaldoko herritarrek ez dute pertonaia historikoa bereziki maitate. Badituzte bera gorrotatzeko arrazoiak, 1835. urtean herria erretzeko agindu baitzuen jeneralak. T

xomin Egiluz eta Markel Iturrizar arrankudiagarrek gertara hori ikertu dute. Euren esanetan, Esparteroren aurkako enbor-bonba jarri zuten Arantzazuerrekan (Aretan). Eztandak jenerala, bere zaldia eta hainbat soldadu zauritu zituen, eta horregatik agindu zuen militarrek Arakaldo kiskaltzea, mende-ku gisa. Egiluz eta Iturrizarren arabera, ia herri guztia suntsitu zuen suak. Bi baserri, eliza eta udaletxea soilik salbatu ziren.

Arakaldoko Jaiak uztailan
Ekainaren 23ko jaiaren ostean etorriko dira Arakaldoko Jaiak. Uztailaren 12tik 14ra luzatuko direla aurreratu dute antolatzaileek, baina oraindik ez dute egitarauaren berri ematerik izan, ekintzak lortzen dihardutelako.

Espartero jeneralak Arakaldo erabat erretzeko agindua eman zuen Lehen Karlistaldian, bere aurkako enbor-bonba batek leher egin ostean

06.23 Igandea

18:00 // Sutan erretzeko egurra prestatzea eta umeekin Espartero panpina egiteko tailerra, Herriko plazan
20:00 // Askaria eta sua piztuko da, Herriko plazan

07.12-07.14 Ostiraletik igandera

ARAKALDOKO JAIK
Egitaraua aurrerago plazaratuko dute

ARAKALDOKO JAIK

Uztailak 12, 13 eta 14

Kontzertuak
Umeentzako jolasak · Aparra Erromeria
Diskofesta · Bolo
Tortila eta igel txapelketa

ONDO PASA JAİETAN!



Errespetuz jokatu, gogoratu ezetz beti da ezetz!

EUROMASTER TALLERES PICAZA **ONDO PASA JAİETAN!**

MEKANIKA	ESEKIDURA
OLIOA	ISILAK Ihes lerroak
BALAZTAK Pastillak eta diskoak	PNEUMATIKOAK Marka guztiak
DIAGNOSIA BKT diagnosis	AUTO GARBİKETAK

La Isla auzoa z/g, Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399



Espartero jenerala irudikatzen duen panpina erretzeko ohitura dute. Aiaraldea.eus

MAHOU SANMIGUEL

GARBİNE ZUGAEN
687 56 60 75 -GALDER-

Gera Arakaldoko jaiak!

ARETAKO JAIK

Hainbat berrikuntzarekin datoz aurten Aretako Jaiak

Izate Faltsua, RIP taldearen tributua, Sua eta Herdoil taldeak eta Iratzar eta Ozen erromeriak igoko dira oholtzara. Horrez gain, Aiaraldeko DJ Topaketa egongo da ostegunean.

Ez dira faltako ezta Aretako jaien ohiko ekintzak: asto lasterketa, paella txapelketa, dantza poteoa, traila edota mendi ibilaldia, besteak beste.



Hainbat gastronomia txapelketa egongo dira Aretako jaietan. Aiaraldea.eus

Testua Txabi Alvarado Bañares

Uztailaren 25etik -osteguna- 28ra -igandea- luzatuko dira aurten Aretako jaiak. Makina bat ekintzaz gozatzeko aukera egongo da lau egun horietan. "Betiko jaiak antolatu ditugu", zehaztu dute Jai Batzordeko kideek. Euren hitzetan, Aretako jaiak erabat herrikoiak dira, herriko jendeak antolatzen dituelako ehuneko ehunean. Jai Batzordeaz gain, beste hainbat elkarte eta eragilek hartu dute parte egita-

rauaren osaketan: Herriarenak, asto lasterketa antolatzen duen taldea, trail taldea edota sukala-dari lanetan aritzen diren pertsonak, besteak beste.

Aurtengo egitarauari dagokionez, "funtzionatzen duten ekintzak" mantenduko dituztela aurreratu dute antolatzaileek, baina ekintza berriak ere egongo direla nabarmendu dute. Ostegun arratsaldean emango diete jaiak hasiera, Kultur Etxean. Bertako balkoitik jaurtiko dute pregoilariek lehen suziria. Oraindik ez dute pregoilaria nor izango de

Funtzionatzen duten ekintzak mantendu eta berriak planteatu dituzte Jai Batzordeko kideek

zehaztu, baina egitarauko ekintza gehienak lotuak dituzte dagoeneko.

Musika eskaintza

Ostegunean bertan egongo da berrikuntza nagusietako bat: Aiaraldeko DJen topaketa egingo dute iluntzean. Ostiraletako eta larunbateko gauetan, aldiz, orain arteko eskema bera mantendu dute: talde baten kontzertua egongo da lehenbizi, eta erromeria gero. Gauzak hala, ostira-lean Izate Faltsua talde amurriarra igoko da oholtzara lehenbizi. RIP talde mitikoaren bertsioak entzuteko aukera egongo da jarraian, eta Iratzar erromeria arduratuko da parranda goizeko ordu txikietara arte luzatzeaz.

Larunbatean plana antzekoa izango da. Aurtengo Gaztea maketa lehiaketa irabazi duen Sua taldeak joko du lehenbizi, eta Herdoilen eta Ozen erromeriaren txanda izango da gero.

Baina egitaraua ez da gauera mugatuko. Egunean zehar ere hainbat ekintzaz gozatzeko aukera egongo da: gastronomia txapelketak, trail lasterketa, umeentzako tailerrak, artzain txakurren lehiaketa, herri bazkariak edota pilota partidak, besteak beste. Horrez gain, antolatzaileek ohartarazi dute ez dutela jaietan inolako eraso matxistarririk onartuko.

07.25 Osteguna

SANTIAGO EGUNA

11:00 // Paella txapelketa
12:00 // Poteo joteoa
14:00 // Sari banaketa
18:00 // Soka Laudiotik Aretara
19:00 // Pregoiaren irakurketa, txupinazoa eta jaien hasiera



19:15 // Aretako buruhandiak
19:30 // Kalejira Aretako txistulariekin
19:30 // Artzain txakurren lehiaketa Santa Anako zelaian
20:00 // Erromeria Gauargi taldearekin
22:30 // Aiaraldeko DJ Topaketa

07.26 Ostirala

SANTA ANA EGUNA

9:45 // Alpitxu mendira VIII. Igoera
10:00 // Bisita mojoietara
12:00 // Meza Santa Anaren ohorez

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ARATZ

café-bar **ARATZ** Areta kalea 22 ARETA(ARABA)

EL TUNEL
TABERNA-JATETXEA

Otarako gozoak jaietako egun eta ordu guztietan

Ondo pasa jaietan!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO Tel. 94 672 05 58

xarmanta
j a t e t x e a

- Eguneko menuak
- Karta eta menu bereziak
- Ospakizunak

Ondo pasa jaietan!

Tel. 94 672 47 34
Zuloaga auzoa, ARRANKUDIAGA

ARETAKO JAIK

Aretako traila, kirola eta elkartasuna uztartzeko prest

Bihotzez elkartari emango diote lasterketaren inskripzioen bidez lortzen duten dirua. Parte hartzeari dagokionez, markak haustea espero dute antolatzaileek.



Aretako trailaren iazko edizioan hartutako irudia. Urtzi Garai

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Duela hiru urte antolatu zuten Aretako Trail Lasterketaren lehen edizioa, eta jailetan bere toki propioa aurkitu du dagoneko.

Elkartasuna jorratuko dute aurtengo edizioan. Kirol probaren antolatzaileek akordioa sinatu dute Bihotzez elkartea-ekin. Gauzak hala, lasterketan parte hartzeko ordaindu beharreko 10 euroetatik 2 euro bideratuko dira kardiopatiak dituzten haurren familien talde horretara.

Larunbat arratsaldean egingo da lasterketa. Parte hartzaileek 13 kilometroko bidea osatu beharko dute. Izen ematea irekita dago jadanik Sportmaniacs.com webgunean.

"Herritik eta herriarentzat"

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, "herritik eta herriarentzat" antolatuta kirol proba da Aretakoa. "Gure helburua ez da puntako norgehiagoka bat antolatzea".

Parte hartzaile kopuruari dagokionez, markak hautsinahidituzte antolatzaileek. "Iaz 135 korrikalari bertaratu ziren eta aurtengo 200a iristea espero dugu, hori baita jarri dugun muga".

Emakumeen parte hartzea sustatzea da buruan duten beste erronketako bat, iaz zortzi baino ez baitziren egon.

12:30 // Umeentzako gastronomia tailerra
14:00 // Bazkaria eta omenaldia 80 urte baino gehiago dituzten nagusiei, Onievan.
Jarraian dantzaldia egongo da
14:30 // Gazteentzako bazkaria, Aretako Gazte Asanbladaren eskutik
18:00 // Pilota partidak: Rafa Olabarriaren omenezko II. Memoria



18:00 // Elektrotxara.g.a
18:00 // Buruhandiak Galtzagorri Kultur Taldearen eskutik
19:00 // Zunba
20:30 // Dantza poteoa Untzueta Dantza Taldearekin
23:00 // Kontzertuak: Izate Faltsua, Z.E.N (Rip taldearen tributua) eta Iratzar erromeria

07.27 Larunbata SANTA ANATXU EGUNA

10:00 // Marmitako txapelketa
12:00 // Igel-toka txapelketa, Aratz tabernaren parean
13:00 // Aretako txistulariei III. omenaldia
13:00 // Laudioko Arloteen bisita
14:00 // Txapelketaren sari banaketa

17:00 // Umeentzako tailer eta jokoa, Pinpili aisialdi taldearen eskutik



18:00 // III. Areta Trail Lasterketa



18:00 // Bolo arabar txapelketa
19:00 // Kalejira Aretako trikitilariarekin
20:00 // Herri kirolak
21:00 // Parrillada herrikoia
23:00 // Kontzertuak: Sua, Herdoil eta Ozen erromeria



07.28 Igandea

12:30 // Asto lasterketaren aurkezpena



13:00 // Asto lasterketa
15:00 // Bazkari herrikoia
18:00 // Joko herrikoia
20:00 // Dantza plaza Kulunkanekin
21:30 // Igor Arzuaga
23:00 // Jaien amaierako traka

AUTOBUSES
ONIEVA

Gora
Aretako
jaiak!

Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45
Larrialdiak: 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

www.onieva.com
onieva@onieva.com




Gora Aretako jaiak!

Uztailaren 25etik 28ra

ASTO LASTERKETA HERRI KIROLAK DJ TOPAKETAK
KONTZERTUAK DANTZAPOTEOA GASTRONOMIA LEHIAKETAK
JOLASAK TRAIL LASTERKETA ZUMBA TAILERRAK

Bar C.S.C
Santa Ana



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

- Pintxo eskaintza zabala
- Raba goxo-goxoak
- Koktelak prezio onean

Patricia Bilbao urbanizazioa 4, LAUDIO
678 55 05 97

UGARTEKO JAIK (LAUDIO)

Ugarteko gazteak, “trantsizio urtean” buru-belarri

Belaunaldi aldaketa martxan dago Ugarteko jaien antolakuntzan. Ugarteko Gazteak elkarteak kideek iaztik daramate lanean, aurreko jai batzordea desegin zenetik.

Helburu argia dute: auzoko jaiak eraldatzea, jai herrikoiak sustatzeko helburuarekin. Horri begira lanean jarri dira dagoeneko, eta aurten sumatu ahalko dira lehen aldaketak.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ugarteko Jailetako hainbat ekintza antolatuko ditu aurten Ugarteko Gazteak elkarteak. “Jai herrikoiak” sustatzea da taldearen helburua, “egitarau oparoa-ekin”.

Iaz jarri ziren horri begira lanean, azken urteetan jaiak antolatzen egon zen taldea desegin zenean. Bilera egin zuten auzoko “adin eta profil ezberdinetako” gazteen artean, zer eta nola egin pentsatzeko. “Denbor luzez gazteon artean hitz egin zen jailetako hainbat gairen inguruan. Modu horretan, lehenengo pausuak ematen hasi ginen”. Nabarmendu dutenez, zailtasun ugari utzi dituzte bidean, eta aurreratu dute ez dutela nahiko luketen guztia antolatzerik izango.

“Trantsizio urtea”

Gauzak hala, aurtengoa “trantsizio urtea” izango dela uste dute Ugarteko Gazteak. “Gazteok jaiak osotasunean gure gain hartzeko aukera izan ez dugunez, urtero egin izan diren ekintzak egiten jarraituko dugu. Hemendik aurrera garrantzia eman nahi diegu Ugarteko jendeak zein Laudioko beste elkarre askok antolatutako jarduerai, gure aburuz eurak baitira jaiak bizitza ematen dietenak”.

Hala ere, ekintza berri ugari prestatu dituzte aurtengo jaientarako. Abuztuaren lehen umeen eguna antolatuko dutela aurreratu dute, besteak beste. “Arratsaldean umeentzako eskaintza oparoa izango dugu tailer, eskulan, puzgarri, buruhandi zein pailazoekin eta barraken prezioa murriztua egongo da. Hurrengo asteetan finkatuko da behin betiko egitaraua”.

Jai eredu berria

Kritiko azaldu dira elkarteak kideak orain arte garatutako jai ereduarekin. “Ugarteko jaiak urteetan izandako ospea ezerezean geratu da. Nagusitu ahala jaiak beste eredu bat izan dezaketela ikusten duzu eta hori aurrera eramatea Ugarteko gazteon esku egon behar dela uste dugu, argi eta garbi”. Bizilagunen inplikazioa sustatu nahi dute, auzokideak kalean nahi ditugu auzoa bizi bizirik egotea lortzeko.

Horrela, elkarteak kideak badakite aurretik duten bidea ez dela erraza izango. “Gauzak antolatzeak jo-mugan jartzera eramaten zaitu eta, edonon bezala, jende ugari dago asko hitz egin eta gero gutxi egiten duena. Hala ere, emeki-emeki urratsez urrats jai herrikoak lortuko ditugunaren konfiantza osoa daukagu eta aurrerapauso hori emateaz oso harro gaude”.



Herri bazkaria egingo dute jailetan, besteak beste. Aiaraldea.eus

Auzoan “jai eredu berria” sustatu nahi dute Ugarteko Gazteak. Aurtengoa trantsizio urte gisa markatu dute, aldaketa hori gauzatzeari begira

UGARTEKO ESTANKOA

LOTARIA NAZIONALA
LOTARIA PRIMITIBOA
BONOLOTO
EUROMILIOIA
KINIELAK

Ondo pasa jailetan eta zorte on!



Ugarte 6, LAUDIO · 946 720 869



**ULTRAMARINOS
SALLEN**

Ondo pasa jailetan!

Ugarte kalea 10 (Laudio)
94 672 05 63

BAR UGARTE

Askotariko pintxoak
Txibierroak igandero

UGARTE, 11 LAUDIO

TEL. 94 672 56 99



UGARTEKO JAIK 2019

Uztailak 31- Abuztuak 4

- Kontzertuak
- Herri bazkaria
- Herri kirolak
- Mus txapelketa
- Puzgarriak
- Tailerrak



UGARTEKO JAI BATZORDEA

Gorbea
Taberna

Jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu!

Ugarte kalea 1
Laudio
94 672 29 75



UGARTEKO JAIK (LAUDIO)

Las Tea Party DJek girotuko dituzte Ugarteko Jaiak

Oraindik ez dute Ugarteko Jaie negitaraua guztiz zehaztu, baina ekintza gehienak aurreratu dituzte dagoeneko. Kontzertuak egongo dira ostiral eta larunbat gauetan. Egunean zehar, aldiz, beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da Laudioko auzoan.



Las Tea Party DJek girotuko dute auzoa larunbat gauean. Saioa Gauilunak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ugarteko jaiekin hasiko da abuztuko ospakizunen maratonia. Uztailaren 31n -asteazkena- hasiko dira Laudioko auzo horretako festak, eta igandera arte-abuztuak 4- luzatuko dira. Egitarau oparoa prestatu dute jai batzordeko kideek egun horietarako. “Atzoko gazteak” izango dira lehen eguneko protagonistak. Eurentzako bazkaria eta dantzaldia egongo dira, besteak beste. Abuztuaren lehen, aldiz, Umeen eguna izango da: puzgarriak tailerrak, buruhandiak, pailazoak eta talo tailerra egongo dira. Ostiralean ere goizetik gauea arte luzatuko da programa. Bolo eta kalba erakustaldia egongo da goizeko hamaiketan eta beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da Laudioko auzoan.

tan eta beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da Laudioko auzoan. Ostiralean ere goizetik gauea arte luzatuko da programa. Bolo eta kalba erakustaldia egongo da goizeko hamaiketan eta beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da Laudioko auzoan.

Tokiko produktuen azoka, herri kirolak, umeentzako ekintzak eta beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da Laudioko auzoan.

jaiak. Egurdiko hamabietan tortilla lehiaketa egingo dute. Mus azkar txapelketa, umeentzako tailerrak eta odoloste jana egongo dira gero, jaien amaierako traka baino lehen.

PESCADOSLa CastreñaMARISCOS

Ondo pasa jaietan!

Ugarte kalea 13, LAUDIO94 656 95 29

07.31 Asteazkena
12:00 // Txupinazoa
12:00 // Txori kantarien lehiaketa
12:30 // Meza
13:15 // Poteoa Arloteekin
14:00 // Atzoko gazteen bazkaria
17:00 // Dantzaldia Otegiarekin

08.01 Osteguna UMEEN EGUNA
17:00-19:00 // Puzgarriak eta umeentzako tailerrak
18:00 // Buruhandiak
19:00 // Pailazoak
20:00 // Talo tailerra

08.02 Ostirala
11:00 // Bolo eta kalba erakustaldia
11:30 // Pilota partidak
16:00 // Igel toka Txapelketa
17:00 // Buruhandiak
19:00 // Asierren erakusketa
22:30 // Kontzertuak: Eskualdeko taldea, erromeria eta DJa

08.03 Larunbata
11:00 // Azoka: LaudioOn egin



13:00 // Poteoa Aretako trikitilariarekin
14:30 // Bazkaria
16:30 // Poteoa batukadarekin eta dantza plaza
18:00 // Herri kirolak
22:30 // Kontzertua, erromeria eta Las Tea Party DJs

08.04 Igandea
12:00 // Tortilla lehiaketa
16:00 // Mus azkar txapelketa
17:30 // Umeentzako tailerrak
21:00 // Odoloste jana
00:00 // Jaien amaiera traka